



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

I. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2015eko maiatzaren 13, 14 eta 15
Durango, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK

**Nazioarteko krimenengatik
sortutako erantzukizun penala.
Joint Criminal Enterprise
delakoaren azterketa**

Miren Odriozola-Gurrutxaga

176-182 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.i.23>

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



eman ta zabal zazu



LAGUNTZAILEAK:



Nazioarteko krimenengatik sortutako erantzukizun penala. *Joint Criminal Enterprise* delakoaren azterketa

Odriozola-Gurrutxaga M.

Zuzenbide Fakultatea (UPV/EHU), Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAC/KREI)
miren.odriozola@ehu.eus

Laburpena

Nazioarteko krimenetan pertsona askok parte hartzen dutenez, Nazioarteko Zuzenbide Penalaren erronka handienetako bat horien guztien erantzukizun penal indibiduala zehaztea da. Testuinguru horretan, *ad hoc* auzitegiek *Joint Criminal Enterprise* (JCE) delako teoria garatu dute euren jurisprudentzian; Nazioarteko Auzitegi Penalak, berriz, egitatearen gaineko kontrolaren teoria erabili du oinarritzat. Artikulu honetan JCE teoriari egindako lau kritika aztertuko ditugu: Harreman horizontal eta bertikalen arteko ezberdintasuna, funtsezko ekarpenik eza, partekatutako dolorik eza, eta JCE III egilekidetza gisa ulertzearen arazoak. Lau kritiken garrantzia dela-eta, nazioarteko auzitegi penalek JCE doktrina alde batera utzi beharko luketela ondorioztatuko dugu.

Hitz gakoak: Nazioarteko Zuzenbide Penala, Joint Criminal Enterprise, Egilekidetza, Egitatearen gaineko kontrolaren teoria.

Abstract

Owing to the large amount of people who get involved in the commission of international crimes, one of the most significant challenges which International Criminal Law undertakes consists in the attribution of individual criminal liability to each of them. In this context, while the *ad hoc* tribunals have developed the *Joint Criminal Enterprise* (JCE) theory, the International Criminal Court has based its case law on the theory of control over the crime. The present Article analyzes four critical remarks of JCE theory: difference between horizontal and vertical relations, lack of an essential contribution, lack of a shared intent, and problems of characterizing JCE III as a form of co-perpetration. Due to the relevance of these critical aspects, international criminal tribunals should avoid applying JCE doctrine.

Keywords: International Criminal Law, Joint Criminal Enterprise, Co-perpetration, Theory of control over the crime.

1. Sarrera eta motibazioa

Ezberdinak izan arren, genozidioek, gizateriaren aurkako krimenak eta gerra krimenak badute antzekotasun garrantzitsu bat: biktima kopuru handia eragiteaz gain, krimenen arduradunak ere asko dira. Askok dira, eta askotariko parte-hartzea dute basakerietan. Tiro egiten duten eta eskuak odolez zikintzen dituzten behe mailakoa soldaduak ez ezik, Miloševićen gisako goi-karguak, arma hornitzaileak, etab. ere kontuan hartu behar dituzte nazioarteko auzitegi penalek.

Nazioarteko krimenak, beraz, pertsona askoren parte-hartzearen ondorio dira. Hori dela-eta, krimen kolektibotzat jotzen dira. Erantzukizun penala, berriz, norbanakoaren gainekoa da. Nazioarteko Zuzenbide Penalaren (aurrerantzean, NZP) erronka handienetako bat krimen kolektibo horiengatik sortutako erantzukizun penala norbanakoari bidezko moduan egozte da. Horretarako, ezinbestekoa da Zuzenbide Penalaren oinarritzko printzipioak errespetatzea, bereziki, erantzukizun penal indibiduala eta norberaren egitateengatik sortutako erantzukizuna.

Tamalez, printzipio horien interpretazio hertsiegi batean oinarrituta, doktrinaren zati batek (Weigend, 2011; Herzberg, 2000) Hitlerren gisako goi-karguak partaide huts gisa – induktore gisa, hain zuzen ere – zigortzea proposatu izan du. Horrelako eta antzeko bidegabekeriak ekiditeko, nazioarteko auzitegi penalek eta nazioarteko doktrinak hainbat teoria garatu eta aplikatu dituzte, besteak beste, *Joint Criminal Enterprise* (hemendik aurrera, JCE) delakoa.

Teoria horien xedea goresgarria izan arren, ezin dute gehiegikeriarik eragin; edozein kasutan, Zuzenbide Penalaren oinarritzko printzipioak errespetatu behar dituzte. Horiek horrela, Artikulu honen helburua JCE teoriak aipatutako printzipioak errespetatzen dituen edo gehiegikeriarik eragiten ote duen finkatzea da.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Esan bezala, nazioarteko auzitegi penalek eta nazioarteko doktrinak zenbait teoria garatu dituzte nazioarteko krimenen izaera kolektiboak planteatzen dituen arazoei aurre egiteko. Agerikoa da *ad hoc* auzitegiek (Jugoslavia ohirako Nazioarteko Auzitegi Penala (JNAP) eta Ruandarako Nazioarteko Auzitegi Penala (RNAP)), batetik, eta Nazioarteko Auzitegi Penalak (NAP hemendik aurrera), bestetik, garatutako jurisprudentziaren arteko aldea.

Alde batetik, *ad hoc* auzitegiek JCE aplikatu dute, eta horretarako, euren Estatutueta 7(1) eta 6(1) artikuluetan (JNAPko eta RNAPko Estatutuak, hurrenez hurren) oinarritu dira. Artikulu horien arabera, erantzukizun penal indibiduala izango du krimena planifikatu, indusitu, agindu, gauzatu edo beste modu batera krimena planifikatzen, prestatzen edo exekutatzen lagundu duen orok. Zehazki, krimena “egin” (*commit*) kontzeptuan oinarritu dute JCE teoria.

JCEk *common law* sisteman du jatorria. *Common law* sistemako estatuetan partaidetza gisa aplikatzen den arren (Van Sliedregt, 2003), JCE doktrina JNAPk lehen aldiz nazioarteko mailan formulatu zuenean (*Tadić* kasuan¹), ez zuen argi utzi JCEn oinarrituta zigortutako norbanakoak krimenaren egile ala partaide ote ziren. Baina 2003an *Milutinović* kasuan egindako adierazpenetik aurrera, argi geratu zen egile gisa – zehazki, egilekide gisa – zigortzen dituztela *ad hoc* auzitegiek JCEko kideak².

Egile-kontzeptu subjektiboan dago oinarrituta JCE; izan ere, gaizkile bat JCEko kide (eta ondorioz, egilekide) den erabakitzeke irizpide garrantzitsuena honako hau da: planean jasotako krimena aurrera eramateko duen borondatea. Norbanakoak krimenera egindako ekarpenaren edukia eta pisua ez da erabakigarria. Egindako ekarpenak ez du gutxieneko mugarik gaititu behar, norbanakoak krimenarekiko duen asmoa baita kontuan hartu beharrekoa.

Bestetik, NAPk Roxinen (2000) *egitatearen gaineko kontrola* (*Tatherrschaft, theory of control over the crime, teoría del dominio del hecho*) delako teorian oinarritu du egiletzaren eta partaidetzaren arteko ezberdintasuna orain arteko jurisprudentzian³. Egitatearen gaineko kontrola hiru modu ezberdinetan azaleratu daiteke: 1) akzioaren gaineko kontrola (egiletza zuzena); 2) egitatearen gaineko kontrol funtzionala (egilekidetza); eta 3) borondatearen gaineko kontrola (bitarteko egiletza). Erromako Estatutuak 25(3) artikuluko (a) atalean jasotzen du krimenaren egiletza – (b), (c) eta (d) ataletan, berriz, partaidetza mota ezberdinak –, eta bertan, aipatutako hiru egiletza motak aurreikusten ditu: egiletza zuzena (*commits a crime as an individual*), egilekidetza (*jointly with another*), eta bitarteko egiletza (*through another person*).

Egitatearen gaineko kontrolaren teoria Zuzenbide kontinentalean – bereziki, alemaniarrean – sortutako teoria da. NAPk aplikatutako teoriak (egitatearen gaineko kontrolaren teoria) egile-kontzeptu objektibo-materiala onartzea dakar (Olásolo, 2013). Horrela, egilekidetzaren eremuan, planaren exekuziorako funtsezko ekarpena egiten dutenak bakarrik dira egilekideak. Ikus daitekeen bezala, egile-kontzeptu subjektibotik eta egile-kontzeptu objektibo formaletik aldentzen da egitatearen gaineko kontrolaren teoria.

Behin nazioarteko auzitegi penalen arteko ezberdintasunak aipatuta eta testuingurua ezarrita, JCE teoria aztertu dezakegu.

3. Ikerketaren muina

¹ *Prosecutor v. Tadić, Appeals Chamber Judgment*, 1999.07.15 (IT-94-1-A), 220-228. para.

² *Prosecutor v. Milutinović et al., Decision on Dragoljub Ojdanić's Motion challenging Jurisdiction – Joint Criminal Enterprise*, 2003.05.21 (ICTY-99-37-AR72).

³ *Prosecutor v. Thomas Lubanga Dyilo, Decision on the confirmation of the charges*, 2007.01.29. (ICC-01/04-01/06-803-TEn), 333-334. eta 338. para.; *Prosecutor v. German Katanga and Mathieu Ngudjolo Chui, Decision on the confirmation of the charges*, 2008.09.30 (ICC-01/04-01/07-717), 488. para.; *Prosecutor v. Thomas Lubanga Dyilo, Trial Chamber I Judgment*, 2012.03.14 (ICC-01/04-01/06-2842), 1356-1358. para.; *Le procureur c. Germain Katanga, Jugement rendu en application de l'article 74 du Statut*, 2014.03.07 (ICC-01/04-01/07-3436), 1382 eta 1393-1394. para.

Nazioarteko krimenen izaera kolektiboa dela-eta bakoitzak egindako ekarpena eta bakoitzaren erantzukizuna zehazteko zailtasunak gainditzeko asmoz, JCE doktrinak plan kriminalean parte hartzen duten guztiei egozten die erantzukizun penala (Cassese eta Gaeta, 2013). JCE doktrina bakarra izan arren, *ad hoc* auzitegiek hiru mota bereizten dituzte.

3.1 JCE teoria: Hiru motak

Tipo subjektiboan datza hiru moten arteko ezberdintasuna; tipo objektiboa, berriz, berbera da hiruetan, eta honako baldintza hauek bete behar ditu (Ambos, 2007): 1) Pertsona asko izatea; 2) plan komuna edukitzea; eta 3) edozein motatako ekarpenen bidez, JCEko kide bakoitzak plan komunaren exekuzioan parte hartzea.

JCE I modalitatean (*helburu komunarengatik sortutako erantzukizuna*), taldeko kide guztiek xede kriminal berbera dute, eta plan kriminalaren exekuzioan izandako ekarpen zehatzak ez du axolirik (Ohlin, 2007). Guztiak egilekide gisa zigortzen dituzte. Adibidez, hilketa burutzeko JCE batean, biktima hiltzen duen tiroa pertsona bakar batek egin arren, kide guztiak (baita, esaterako, biktima egitateen lekura eramaten duena ere) egile zuzenaren egilekide izango dira.

JCE II modalitatea (*erakunde baten barruan leku hartzen duen plan kriminalean parte hartzeagatik sortutako erantzukizuna*) Auschwitz eta antzeko kontzentrazio esparruetan pentsatuz formulatu zuen JNAPk. Erakundeko langileek bertan gertatzen diren tratatu txarren berri badute eta euren funtzioa betetzen jarraitzen badute (eginkizun administratiboak izan arren) – beti ere helburu instituzionalak lortzeko lagungarri baldin badira –, krimenen egile zuzenen egilekide izango dira.

Kasu hauetan, tratatu txarren berri izan eta euren lana betetzen jarraitzen dutenek inplizituki krimenak zuzenean gauzatzen dituztenen xede kriminal berbera dutela ondorioztatzen dute auzitegiek. Horregatik, JCE I modalitatearen azpi-mota da JCE II (Olásolo, 2013).

JCE III modalitateari dagokionez (*krimena aurreikusteko aukerarengatik eta arriskua borondatez onartzearengatik sortutako erantzukizuna*), kide bakoitzak taldearen xede kriminalean parte hartu eta hura sustatu nahi badu, JCEko beste kideek egindako krimenen egilekide izango da, baita beste kideek plan komunaren parte ez diren krimenak burutzen badituzte ere, betiere horiek plan komunaren ondorio aurreikusgarriak eta naturalak badira eta dagokion pertsonak kontzienteki arriskua onartzea erabaki badu (Ohlin, 2007).

Hirugarren modalitatearen konplexutasuna ikusirik, honako adibide hau erabil daiteke hura hobeto ulertzeko: gaizkile talde batek inor hil gabe banku bat lapurtzea adostu zuen, eta horretarako, gezurrezko armak erabiliko zituztela hitzartu zuten. Taldeko kideetako batek benetako arma badarama, eta beste kideetako bat hortaz ohartzen bada, lapurretan hildakorik suertatzen bada, benetako arma daramanaz gain, horren berri zuena ere lapurretaren eta hilketaren egilekide izango da.

3.2 JCE teoriari egindako kritikak

Doktrinak JCE teoriari egindako kritika gehienak JCE III modalitatearen aurkakoak izan arren, modalitateetako bat bera ere ezin da egilekidetza gisa interpretatu. Jarrain, hiru modalitateen kontrako kritikak plazaratuko ditugu, eta azken azpi-atalean, hirugarren modalitatean jarriko dugu arreta.

Harreman horizontal eta bertikalen arteko ezberdintasuna

Kontuan hartzekoa da JCE delako taldea osatzen dutenen arteko ezberdintasuna. Aginduak exekutatzen dituztenez gain (behe mailako kideak), agindu horiek eman (goi mailakoak) eta aginduak exekutatzaileei pasatzen dizkietenak (erdi mailakoak) ere badaude. JCEko kide guztiak egilekide direla esateak euren artean harreman horizontala dagoela onartzea dakar. Baina agindua eman eta betetzen duenaren arteko harremana bertikala da (Faraldo, 2004).

Gainera, elkarren arteko plana edo akordioa da JCEren betekizunetako bat, eta nekez defenda daiteke agindua eman eta exekutatzen duenaren artean elkarren arteko akordiorik dagoenik

(Bolea, 2000). Ondorioz, errealitatearekin bat ez etortzeaz gain, maila guztietako kideak egilekide gisa zigortzea bidegabea da, denen ekarpena parekatzea dakar eta. Nabarmena da, ordea, goi eta behe mailako kideen ekarpenek pisu eta garrantzia ezberdina dutela krimenean.

Funtsezko ekarpenik eza

Tipo objektiboaren ikuspegitik, JCE teoriarin oinarritutako egilekide baten ekarpena partaide huts batena baino apalagoa da: JCE teoriak egiletzaren eta partaidetzaren arteko ezberdintasuna tipo subjektiboan (hots, borondatean) ezartzen duenez, krimenera egindako ekarpenaren betekizun objektiboa alde batera uzten du: krimena gauzatzerako "espezifikoki zuzendutako" egitate substantzialak (*substantial contribution*) egitea eskatzen diote partaideari *ad hoc* auzitegiek; egilekideei (JCEko kideei), ostera, "edozein modutan" plan edo xede komuna sustatzera zuzenduta dauden edozein motako egitateak gauzatzea⁴.

Aipatzekoa da 2007. urtetik *ad hoc* auzitegien jurisprudentziak izandako eraldatze prozesua: substantzialak izatera iritsi gabe, JCEko kidearen ekarpenak gutxienez nabarmena (*significant contribution*) izan behar duela adierazi du⁵. Edonola ere, egile-kontzeptu subjektiboan oinarrituta jarraitzen du JCE teoriak, galdatutako ekarpen-maila egitatearen gaineko kontrolaren teoriak eskatzen duen funtsezko ekarpena (*essential contribution*) baino apalagoa da eta (Olásolo, 2013).

Akats nabarmena da norbanakoak egindako ekarpenaren garrantzia kontuan ez hartzea egiletza eta partaidetza bereizteko. Ezagunak dira egile-kontzeptu subjektiboak dakartzan arriskuak. Esaterako, *Stashchynsky* kasu ezagunean, Alemaniako Auzitegi Gorenak partaide gisa (ez egile zuzen gisa) zigortu zuen bi hilketa zuzenean eragin zituen KGBko agentea; eta, horretarako, honako argudioa erabili zuen: akusatuak beste baten egitateetan laguntzeko asmoa zuela, eta ez zituela hilketak bere egitate propio gisa gauzatu (Fletcher, 2000). Horregatik, egile-kontzeptu subjektiboa (eta horretan oinarritutako teoriak, adibidez, JCE) erabili beharrean, egitatearen gaineko kontrolaren teoria objektibo-materiala aplikatzaren aldekoak gara.

Partekatutako dolorik eza

Bai JCEn oinarritutako egilekidetza bai egitateen gaineko kontrol funtzionalean oinarritutako egilekidetza aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa da egilekideek dolo berdina izatea. Dagokion krimenaren definizioak *dolus specialis* eskatzen badu, hori ere egilekide guztiek eduki beharko dute. Esaterako, genozidioaren kasuan, ezinbestekoa da egileak genozidio-egitate jakina (adibidez, hilketa) gauzatzeko doloaz gain, babestutako taldeetako bat (talde nazional, etniko, arrazazko edo erlijioso bat), osorik edo zati batean, suntsitzeko asmoa edukitzea. Horrela, genozidioaren egilekide guztiek genozidio-egitate jakina gauzatzeko doloa eta taldea suntsitzeko asmoa (*dolus specialis* delakoa) izan behar dute.

Inpunitatea saihesteko helburuarekin, *ad hoc* auzitegietak jurisprudentziak talde handiei ere aplikatu die JCE teoria. Talde handi horietako kide guztiek dolo berbera (eta dagokionean, *dolus specialis* berbera) partekatzen dutela ulertu dute *ad hoc* auzitegiek, baita kide guztiak identifikatzea ezinezkoa denean ere. Taldea osatzen duten ehunka kidek dolo berdina dutela esatea fikzio legala baino ez da: ez dator bat nazioarteko krimenen errealitate kriminologikoarekin. Nazioarteko krimenetan parte hartzen duten pertsonen motibazio eta dolo oso ezberdinak dituzte (Smeulers, 2008).

⁴ *Prosecutor v. Tadić, Appeals Chamber Judgement*, 1999.07.15 (IT-94-1-A), 229. para.; *Prosecutor v. Krnojelac, Appeals Chamber Judgment*, 2003.09.17 (IT-97-25-A), 33. para.; *Prosecutor v. Vasiljević, Appeals Chamber Judgment*, 2004.02.25 (IT-98-32-A), 102. para.; *Prosecutor v. Kvočka et al., Appeals Chamber Judgment*, 2005.02.28 (IT-98-30/1-A), 89. para.

⁵ *Prosecutor v. Brđanin, Appeals Chamber Judgment*, 2007.04.03 (IT-99-36-A), 340. para.; *Prosecutor v. Krajišnik, Appeals Chamber Judgment*, 2009.03.17 (IT-00-39-A), 215. para.; *Prosecutor v. Gotovina et al., Trial Chamber Judgment*, 2011.04.15 (IT-06-90-T), 1953. para.; *Prosecutor v. Kanyarukiga, Trial Chamber Judgment*, 2010.11.01 (ICTR-2002-78-T), 624. para.; *Prosecutor v. Gatete, Trial Chamber Judgment*, 2011.03.31 (ICTR-2000-61-T), 577. para.

Bistakoa da hori genozidioaren kasuan. Genozidio kanpainetan parte hartzen duten guztiek ez dute *dolus specialis*ik. Behe-mailako soldadu askok ez dute taldea suntsitzeko asmorik; are gehiago, kanpaina kriminalaren helburu genozidaren berri ez duenik ere izaten da. Kasu horietan, honako galdera hau sortzen da: genozidioaren ala gizateriaren aurkako krimenen egilekide gisa zigortu JCEko kide guztiak? Izan ere, egilekide badira, denek krimen berberaren erantzule izan behar dute.

Beraz, JCEko kide guztiek dolo berdina dutela esatea ez dator bat nazioarteko krimenen errealitate kriminologikoarekin, bereziki egilekide talde handiei dagokienean.

JCE III egilekidetza gisa ulertzearen arazoak

Esan bezala, JCEren kontrako kritika gehienak hirugarren modalitatearen aurkakoak dira; izan ere, JCE III modalitateak elkarren arteko planaren edo akordioaren parte ez den, baina aurreikusi daitekeen krimenarengatik sortutako erantzukizun penala ezartzea dakar. JCE III modalitatean, tipo subjektiboari dagokionez, nahikoa da kideek krimena inoizkako doloarekin (*dolus eventualis*) gauzatu nahi izatea krimen horren egilekide izateko. Nahikoa da, beraz, krimena gertatzeko arrisku sustantzialaren (*substantial likelihood*) kontzientzia izatea (*awareness*) eta onartzea (*acceptance*). Inoizkako doloa bera ez da arazoa.

Arazoa honako beste hau da: JCE III modalitateak ez du inoizkako doloa elkarren artekoa izatea eskatzen. Nahikoa da, arestian aipatu dugun banku lapurretaren adibidean bezala, kideetako batek krimena gerta daitekeela aurreikustea (kontziente izan eta onartzea). Egilekide izateko, osteraz, doloak – inoizkakoa izan arren – elkarren artekoa izan behar du. Horrela, egoera jakin batean, kideetako batek edo batzuek krimena gauzatuko dutela adosten badute (elkarren arteko inoizkako doloa), kide guztiak egilekide izango dira (Gil Gil, 2014). JCE III modalitateak jasotzen dituen kasuak, berriz, ezberdinak dira: ez dituzte egilekidetzaren baldintzak betetzen (elkarren arteko doloaren baldintza, hain zuzen ere).

Bestalde, JCE III modalitatean oinarrituta, *ad hoc* auzitegiek *dolus specialis* jakin bat eskatzen duten krimenengatik sortutako (adibidez, genozidioarengatik sortutakoa) erantzukizun penala ere ezarri dute zenbaitetan⁶. Doktrinaren zati handi bat bezala (Ambos, 2005; Olásolo, 2013; Cassese, 2008; Badar, 2013), jurisprudentzia horren aurka gaude.

Norbanako bat genozidioaren egile gisa zigortzeko, ezinbestekoa da taldea suntsitzeko *dolus specialis*a edukitzea; eta genozidioa bestelako krimenen exekuzioan gerta daitekeen zerbait dela aurreikusi besterik egiten ez duenak (JCE III modalitatean bezala) ez dauka genozidioak eskatzen duen *dolus specialis*ik, eta ondorioz, ezin da genozidioaren egile izan⁷. Kasu horretan, genozidioaren partaide gisa zigortu beharko lukete auzitegiek akusatua (Ambos, 2005; Olásolo, 2009; Van Sliedregt, 2012) –; eta ez, JCE III modalitatean oinarrituta, egilekide gisa.

4. Ondorioak

JCE teoriari egindako kritikek agerian utzi dute JCEko kideak egilekide gisa zigortzearen bidegabetasuna. Norberaren egitateengatik sortutako erantzukizun penalaren printzipioa errespetatu nahi badute, nazioarteko auzitegi penalek ez lukete JCE teoria aplikatu beharko.

Horrela, begi onez ikusteko modukoa da NAPEk JCE teoriaren ordeztasunaren gaineko kontrolaren teoria jaso izana. Interesgarria da batez ere Erromako Estatutuko 25(3)(a) artikuluan jasotako bitarteko egiletza, zeina egile zuzena penalki erantzule ez denean eta badenean aplikatu daitekeen. Egile zuzena penalki erantzule denean, Botere-Egitura Antolatuen bidezko bitarteko egiletza (*autoría mediata por medio de Estructuras Organizadas de Poder*) da aplikagarri.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

⁶ *Prosecutor v. Brđanin, Decision on interlocutory appeal*, 2004.03.19 (IT-99-36-A), 9-10. para.; *Prosecutor v. Milošević, Decision on Motion for Judgment of Acquittal*, 2004.06.16 (IT-02-54-T), 246. eta 288-293. para.

⁷ *Prosecutor v. Brđanin, Decision for Acquittal Pursuant to Rule 98 bis*, 2003.11.28 (IT-99-36-T), 57. para.

Egitatearen gaineko kontrolaren teorian oinarrituta, NAP Botere-Egitura Ordenatuen bidezko bitarteko egiletza aplikatzen ari da. Hainbatetan, bitarteko egiletza eta egilekidetza (egitatearen gaineko kontrol funtzionalean oinarritutakoa, ez JCEn oinarritutakoa) konbinatu ditu, eta bitarteko egilekidetza (*co-perpetration by means*) aplikatu du. NAPren norabide jurisprudentziala ikusita, hemendik aurrera NZPn aztergai izango diren elementu garrantzitsuenen artean ditugu egitatearen gaineko kontrolaren teoria eta, bereziki, bitarteko egilekidetza.

6. Erreferentziak

- AMBOS, K. (2005): *La Parte General del Derecho Penal Internacional. Bases para una Elaboración Dogmática*, Konrad-Adenauer-Stiftung E. V., Uruguay.
- , (2007), Joint Criminal Enterprise and Command Responsibility, *JICJ*, 5. Zenbakia, 1, 159-183 orrialdeak.
- , (2013): *Treatise on International Criminal Law. Volume I: Foundations and General Part*, Oxford University Press, Oxford.
- BADAR, M.E. (2013): *The Concept of Mens Rea in International Criminal Law. The Case for a Unified Approach*, Hart Publishing, Oregon.
- BOLEA BARDÓN, C. (2000): *Autoría mediata en Derecho penal*, Tirant lo Blanch, Valencia.
- CASSESE, A. (2008): *International Criminal Law*, Oxford University Press, New York.
- CASSESE, A., GAETA, P. (2013): *Cassese's International Criminal Law*, Oxford University Press, Hampshire.
- FARALDO CABANA, P. (2004): *Responsabilidad penal del dirigente en estructuras jerárquicas*, Tirant lo Blanch, Valencia.
- FLETCHER, G.P. (2000): *Rethinking Criminal Law*, Oxford University Press, New York.
- GIL GIL A. (2014): Mens Rea in Co-perpetration and Indirect Perpetration According to Article 30 of the Rome Statute. Arguments against Punishment for Excesses Committed by the Agent or the Co-perpetrator, *International Criminal Law Review*, 14. Zenbakia, 82-114 orrialdeak.
- HERZBERG, R.D. (2000): Mittelbare Täterschaft und Anstiftung in formalen Organisationen, in K. AMELUNG (ed.), *Individuelle Verantwortung und Beteiligungsverhältnisse bei Straftaten in bürokratischen Organisationen des Staates, der Wirtschaft und der Gesellschaft*, Pro-Universitate, Sinzheim, 33 et seq..
- OHLIN, J.D. (2007), Three Conceptual Problems with the Doctrine of Joint Criminal Enterprise, *JICJ*, 5. Zenbakia, 69-90 orrialdeak.
- OLÁSOLO, H. (2009), Reflexiones sobre la doctrina de la Empresa Criminal Común en Derecho Penal Internacional, *InDret*, 3. Zenbakia, 1-24 orrialdeak.
- , (2013): *Tratado de Autoría y Participación en Derecho Penal Internacional*, Tirant lo Blanch, Valencia.
- ROXIN, K. (2000): *Autoría y Dominio del Hecho en Derecho Penal*, Marcial Pons Ediciones Jurídicas y Sociales, Madrid.
- SMEULERS, A. (2008): Perpetrators of International Crimes: Towards a Typology, in A., SMEULERS and R., HAVEMAN (eds.), *Supranational Criminology: Towards a Criminology of International Crimes*, Intersentia, Antwerp – Oxford – Portland, 233-265 orrialdeak.
- VAN SLIEDREGT, E. (2003): *The Criminal Responsibility of Individuals for Violations of International Humanitarian Law*, T.M.C. ASSER PRESS, The Hague.
- , (2012): *Individual Criminal Responsibility in International Law*, Oxford University Press, New York.
- WEIGEND, T. (2011), Perpetration through an Organization. The Unexpected Career of a German Legal Concept, *JICJ*, 9. zenbakia, 1, 91-111 orrialdeak.

7. Eskerrak eta oharrak

- Esker ona José Luis de la Cuesta Arzamendi Irakaslearen zuzenketei.
- Ikerlan honen egilea Doktoreak ez diren ikertzaileak prestatzeko Eusko Jaurlaritzako Doktoratu Aurreko Programako laguntzaren onuraduna da (BFI-2011-144 MOD. AE).